

Biok elkarri kontu kontari

ERRENIEGA IP sortu zenetik, 2000-01 ikasturtean, liburutegiko proiektua martxan jarri zen. Honen hasierako helburuak, eskolako liburutegia hornitzea eta informatizatzea izan ziren. Honi, 2003-04 ikasturtean, beste helburu bat gehitu zitzaion: ikastetxearen irakurketa plana idaztea. Irakasleriak irakurketaren inguruan egiten zituzten ekintzak komunean jarri ziren dokumentu bakar batean bilduz. Aurreko 2004-05 ikasturtean, liburutegiko lan taldea sortu zen.

Lan talde honek hiru ildo hartu zituen bere betebeharretan: liburu guztien informatizatzeko prozesuarekin jarraitzea, liburutegiko funtzionamendua arautzea eta Irakurketa Plana gorpuztea eta indarrean jartzea.

Lan handia garatu da orain arte hiru arlo hauetan, aipagarria da, adibidez, haur bakoitzak diseinatu duen marka-liburu propioa, apalategitik hartutako liburua berriz ere bere lekuan uzten laguntzen diona.

Irakurketa sustatzeko ekintza asko egiten dira, horietako esanguratsuenetarikoa bat, euskal idazleekin topaketak dira. Hauek, modu sakon batez lantzen dira izugarrizko etekin didaktikoa ateratzen delarik. Ekintza hau Zizurko Kultur Patronatu eta Fira enpresarekin kudeatzen da. Aurten, Joxean Ormazabal, Joxemari Iturralde eta Mikel Valverde ilustratzailearen bisita izan dugu. Bakoitzari harrera egiteko eta beste mailako ikasleei ezagutzera emateko, ikasleek erakusketa bat antolatzen dute haien lanen inguruan, izugarrizko oihartzuna eta arrakasta lortzen da. Honetaz gain, Erreniega Ikastetxean erabat sistematizatuak daude maila ezberdinetako elkarren arteko ekintzak. Erreza da liburutegian aurkitzea seigarren mailako ikasleak lau urteko haurrei ipuin bat kontatzen.

Alde batetik, batzuk liburu egokia aukeratu eta prestatu egin behar dute; beste aldetik, entzuleek kontalari ezberdinengandik historiak jasotzen dituzte. Garrantzitsuena: denen gozamina. Oraingo honetan ere, goiko zikloetan dauden ikasleek bere ipuinak idatzi eta ilustratuko dituzte ondoren ikasle txikiei eskaintzeko eta oparitzeko helburuarekin.